

### 1. IDUZKI DENEAN

Iduzki denean, zoin den eder itzala!  
Maitia, mintzo zira, plazer duzun bezala:  
egiten duzula mila disimula, inorant zirela;  
erraiten duzula bertzetaik naizela, faltsuki mintzo zira.

Zazpi urtez beti jarraiki zait ondotik,  
erraiten zautala, ez dut bertze maiterik;  
hitzer fidaturik nago tronpaturik, gaixoa tristerik;  
ez dut eiten lorik, ez jan edan onik, maitia zuregatik.

Oi! ene maitia, nik ere zuregatik,  
pasatzen dizut nik, zonbeit sabeleko min;  
ezkonduz zurekin, samur ait' amekin behar nindeite jin;  
ez dakit zer egin, ez eta nola jin, nik neure etxekoekin.

Oi! ene maitia, nun duzu izpirituia,  
fediaren jabe aita deraukazuia?  
Atxikazu fedia, maita bertutia, libra kontzientzia;  
munduko bizia labur da, maitia, ez zaitela kanbia!

### 2. GALERIANOAREN KANTA

Kantatzera nihazu, alegera gabe,  
ez baitut probetxurik, tristaturik ere;  
nehun ebatsi gabe, gizonik hil gabe,  
sekulakotz galerak enetako dire.

Mila zortzi ehunta hamabortzgarrena,  
ni Ahazparnen preso hartu nindutena;  
Plumagaineko premu, orok dakitena,  
galeretan higatu beharko naizena.

Ala, zorigaitzeko premu izaitea!  
Harek eman baiteraut betikotz kaltea;  
aitari galde\_eginik sortzeko partea,  
galeretan eman nau, hauxe duk dotea!

Ene aita da gizon kontsideratua,  
semia galeretan du segurtatua;  
nun nahi otoitzean belaunikatua,  
saindu iduri, debru madarikatua!

Ene lehen\_ikusia, Kadet Bordaxuri  
Fagore bat banuke, galdetzeko zuri;  
Ongi adreza zaitene arrebari,  
Ene saltzeko zonbat ukan duen sari?

Aita aintzanean ta arreba ondoko  
Osaba burjes hori diru fornitzeko  
Ez ordian enetzat bost sei liberako  
Galeretan bederen leher egiteko!

### 3. GOGOAREN BAITAN

Erabaki nuen, tinko ta fermuki,  
Ez zitzaidala gertatuko,  
Maitasun saretan ez nintzela berriz  
Uste gabean eroriko.

Bi begi izpitxu, irripar ezti bat  
Izan dira nere galtzaile,  
Geroztik hot nabil arantzetan dantzan,  
Ezinezko amets sortzaile.

**Zu hor zaude, dantzan, jauzitan,  
Zer debru bada pasatzen zait  
gogoaren baitan.**

Urrezko txanpon bat eman gogo nuke  
Sorgin bat bilaka banedi,  
Ezina egikor aldatzeko aina  
Gezurra bihurtzeko egi.

Zer den ona edo zer ote den txarra  
Jakin beharko nukelarik  
Sumendi gainean erretzen ari naiz  
Ba al dago irtenbiderik ?.

Geroak zer dakar, ez dut pentsatu nahi,  
Uneak nahi ditut bizi.  
Lau egun dira ta bi omen lanotsu  
Galtzera ez ditut nahi utzi.

Hitzaren jokoan, itxura emanaz,  
Gorde nahiko nuke dena.  
Biluzia nauzu izan zarelako,  
Egoera hunen sormena.

### 4. EGUN SENTIA

Eguzkiaren argia leihopetik sartzean  
pozez ta alaitasunez esnatuko gera  
txorien abestiekin alaitutako\_eguna  
gizonen gorrotoakin hondatuko da\_eguna.

**Ibiliko gera alkarri kalte\_eginaz  
ustez lagunik handienak aurrez ondo\_hitzegi  
Batzuen izerdirekin besteek diru\_eginaz  
egia esan duena giltzapera emanaz.**

Gauza\_horiek ikusteko nola esnatzen gera  
gauza\_horiek egiteko nola jaikitzen gera.  
Txoriek alaitutako eguna hondatzeko  
hobe genduke\_ez esnatu ta bertan gelditu lota

## 5. BALE IHIZI

Ni itsas xoria banitz iparreko izotz lurretarat  
Joan nintaike hegaldaka bale itsu gizenen ondotik  
Itsasoa\_harro dago haizeak oro tzarrean  
Eta gu ezin kontsola etxe goxoa gogoan harturik.  
Zoin asto izan behar den hala guziz miserian bizi  
Untzirat iragaiteko bale bakartiaren hilzaile  
Sos poxika baten gatik zonbat arriskurik ez den  
Ur untzia uzkeilirik buztan hasarretuak leherturik.  
Lana gustokoa zaio arrantzale gai den gazteari  
Bainan ikaretan dago bale basa hurbiltzen denean  
Lot lanari, erna gaiten dio kapitaina jaunak  
Marinela eri dago gorputz animak errotik daldaran.

## 6. EPERRA

Eperrak badititzü bere bi hegalak  
bai eta bürün gainin kokarda eijer bat.  
Zük ere balinbazünü gatzetarzün eijer bat  
neskatilen gogatzeko bilo holli pollit bat. | berriz

Amorosak behar lüke izan lotsa gabe,  
gaiaz ebiltia ez üken herabe.  
egünaz ebiltia desohore leike |  
txoriak ere oro haier soz dirade. | berriz

Ebili izan nüzü gaiaz eta beti.  
Eia! atzemanen nianez lili eijer hori.  
Azkenian atzeman dü; oi, bena tristeki. |  
Lümarik eijerrena beitzairo erori. | berriz

## 7. ERROTA ZAHAR

Errota zahar maitea uraren ertzean,  
uraren ertzean da basati beltzean.  
Negar egiten dezu aleak txetzean. |  
Ni ere triste nabil zutaz oroitzean. | berriz

Zotin segua dabil errotarria  
itzalitako izar distirak dira neretzat zure begiak.

Izar eder bat dago hor goiko lekuan,  
errota zaharra berriz erreka zokuan.  
Bere biziko pena badaukat barruan,  
ezin giztezke bizi elkarren ondoan. | berriz

Bizitzaren legea nahi det onartu  
hala beharra goraiez hartu berez doana zertan behartu.

## 8. BERTSUAK JARRI DIZKAT

Bertsuak jarri dizkat neure buruari  
nahigabia ba daukat barrenan ugari  
mutil gustokorikan ez dalako\_agiri.

Berrogei eta sei urte e(g)inzizkit pasatu  
eta azala berriz pixka bat ximurtu  
neska sartu\_ote naizen eгинаiz bildurtu.

Oraindiokan ez nago mirabe baldana  
kupirarikan gabe egiten det lana  
ezta gaizki izango ni hartzen nauena.

Gazterik ikasi nuen plantxa eta josten  
honela saiatuta diruba sobratzen  
senartxo bat besterikan ez det desirazten.

Gazterik banituzte nik zazpi nobiyo  
batekin ere\_ ez nintzen eskontzeko piyo  
orain damututziak ez dugu baliyo.

Neskatxa\_ederra nagola iruritutzentzat  
zazpi arropa ta\_ erdi badaduzkat beintzat  
ai zer berogarriya mutil zahar batentzat.

## 9. GOIZEAN GOIZIK

Goizean goiz jeikirik, argia gaberik,  
urera joan ninduzun pegarra harturik. Laralai...

Jaun xapeldun gazte bat jin zautan ondotik,  
heia nahi nuenez urera lagunik. La-ra-lai-lai-lai.

Nik ez nuela nahi urera lagunik,  
aita beha zagola salako leihotik. La-ra-lai-lai-lai.

Aita beha zagola, ezetz errangatik,  
pegarra joan zerautan besotik harturik. Laralai...

Urera ginenian, biak buruz buru,  
galdigin zautan ere: "Zonbat urthe tuzu?" Lara  
-"Hamasei... hamazazpi orain'ez konplitu  
zurekin ezkontzeko gatzexegi nuzu. La-ra-lai-lai-

Ettxerat itzultzeko nik dutan beldurra,  
ez jakin nola pentsa amari gezurra!" La-ra-lai-lai-  
-"Neskatxa, nahi duzu nik erakuts zuri  
ettxerat etortzean zer erran amari?" La-ra-lai-lai-la

"Urzo xuri pollit bat, gabaz dabilana,  
hark ura zikindurik, egotu naiz ama." La-ra-lai-lai-  
-"Dakigunaz gerotzik zer erran amari,  
dugun pegarra pausa, gaitezen liberti."